

KRISTO ITZULI DA, BERE EGIA DAKAR

3. GUTUNA

(GUTUN hauek, jarduera eta zereginen giza planoan gaitzen duen dimentsio espiritual-mental batean sartzen zaituztenez gero, zeureganatuagoak izanen dira alde aurretik baretze eta lasaitze tarte bat baldin badago. Geldiaraz ezazu gogamena, ahal izanez gero, pentsamenduen barne-isiltasun egoera batean sartuz. Soilik horrela, egoera horretan -gutziz harkor-, GUTUNOK bere errealitatearekin barneratuko dira giza pentsamenduan).

NIRE ZERUKO MAITASUN MUGAGABEAK behin eta berriz itzultzerantz bultzatzen nau gizateriari idazteko. Zuetako asko jasotzeko prest zaudetenez gero, azkenean ene asmoa da zuek gizatasuna Aita Kontzientziarekin uztartzeko ezagutza izatea. Benetako Kontzientzia Amultsua den Aitarekin batera, eskuzabaleko gauza ederrak egiten baitira.

Lehen esan eta orain berriz esan nahi dudanez, nire misio osoa lurrean MAITASUNAK bultzatua izan zen; eta helburua Existentiaren EGIA irakastea baino ez zen izan; zeren ezagutza hori izan ezik, ez baitago gizateriak pairatu behar duen lan gogorraren berrerospen itxaropenik.

Badakit baieztapen honek nahigabe asko ekarriko diela kristau erlijioaren jarraitzaile zintzo eta saiatuak eta sinesmena oso-osorik 'JESUS' pertsonarengan jarri dutenei. Baina bene-benetan diotsut, EGIA UNIBERTSALA osorik ulertzetik eta -neuk 'Jainkoaren Erresuma' deitutako- izaera giza/espirituala benetan ulertzetik urrun atxikitzen zaituen gizatasuna desegin ahal izateko arrakasta izan dezazun, *aldendu beharra daukazula 'odol bidezko bildotsaren salbazioa' eta 'Trinitatea' bezalako dogma zaharretatik eta beste sineskera batzuetatik, eta EXISTENTZIAREN EGIARA etorri behar duzula guztiz gogamen irekiarekin eta harkorarekin.*

Ez dago bestelako salbamenik, Jainkoak ezin zaitu salbatu; zeren eta, gizakiak existentiaren gertaerez jabetu gabe, lurreko hutsegite berberak egiten jarraituko du azken garaia heldu arte, horrela bere gaixotasuna eta miseria sortuz.

Are gehiago, bekatuen salbamenaz gizakiak duen sineskera edozein izanda ere, hori giza-gezurra da; zeren eta Kausa eta Ondorioaren Legea neurtezina da eta existentiaren berezko ezaugarri bat -'atxikia eta oinarritzkoa' - da.

Ezin dira bereizi ondorioak kausatik, eta kausa ezabatu eta gero ezinezkoa da ondorioz izatea. Horixe da Egia, Izatearen maila bakoitzean.

Zure pentsaeran aurreratu samartuta egon zaitezke orain, lur existentiari dagokion oinarritzko egia hau jaso ahal izateko. Kausa eta Ondorioaren Legea, -Erein eta Jaso- da 'elektromagnetismoa' deitzen duzunaren ageriko ondorioa, eta zientziaz dakien inork ez zuen esperoko Jainkoak alde batera utzi izana magnetismoaren legeak; hain zuzen ere, jarduera – atxikidura - arbuioa.

'Jarduera - Atxikidura - Arbuioa' edo 'Mugimendua - Erakarpeta - Aldarapena' EXISTENTZIAREN

eta GIZA KONTZIENTZIAREN beraren oinarrizko BULKADAK dira; ZEINTZUEK ageriko bizi formak ekarri dizkizuten eta kreazioaren 'lanabes' edo 'tresna' bakarrak diren. Mamia edo 'materia' osatzearen arduradunak dira, forma indibidualizatuaren garapenaz arduratzen dira; eta azkenik, nortasunaren ardura ere badute entitate guztietan.

Lege horiek zure existentzia banakotuarentzat oinarrizkoak direnez gero, ezin dira alde batera utzi. Beraz; ezin dira alde batera utzi zure existentzia indibidualizatuari dagozkion arazoak, eta 'Jainkoak' horietatik salbatuko zaituenik sinetsi. Alde egiteko duzun azken-itxaropen bakarra, giza-esperientziaren gurpiletik jaisteko aukera bakarra, arazo horiek aitortzea eta onartzea da. Gero -minutuz minutu- horiek gainditzeko lan egitea, eta azkenik Unibertsoko Maitasunaren Kontzientziarekin -LAN AMULTSUA egiten duen 'Aitarekin' urtzea eta 'bat' egitea -gogamen, bihotz eta ekintza-garbitasunean.

Aldi berean, zure baitan den 'Aitaren' benetako IZAERAREN ezagutza handitzean, eta 'zeure burua gaindituz eta zure inguru guztian' iritsiko zara etengabeko sinesmena izatera, zeinetara jo ahal izango duzun inguruabar guztietan; zure baitan eta inguruan duzun 'Aitarengandik' zuzenean inspirazioa, ahalmena eta goratze espirituala ateratzeko.

JAKINGO DUZU 'Aitak', benetan, lagundu eta gidatu egiten zaituela 'Aita Maitasunaren Kontzientziaren' Erresuma aldera.

Argi eta garbi ikusiko duzu 'Aita' unibertsala izateaz gain, banakoa ere badela zuretzat. Ezagutzen zaitu, zure pentsaeraren eta arazoen jakitun da. 'Aita Maitasunaren Kontzientziaren' baitan zain dituzu konponbide perfektuak zeuk aitortuak izateko. Horietaz jabetzen zarenean, esaneko edo otzan izan eta entzuteko prest zaudenean, minetik aske geratuko zara.

Entzuteko prest ez zauden bitartean, inoiz ez duzu erabat jasoko 'Aita Maitasunaren Kontzientzia'. Parabola bat kontatuko dizut. Demagun haur bat, izozkia nahi duelako, oihuka eta ostikoka dabilela. Zarata hori egiten duen bitartean, bere aita pazientzia handiz zain dauka logelako atean, izozkia eta fruta ekarri diola erakusteko.

Behar bada uste duzu parabola hori ez daitekeela gerta, hala ere, egia da. Amek gogoratuko dituzte seme-alabak zeozergatik nahigabeturik egon diren aldiak, amak hainbeste esan nahi diena entzuteari uko egiten diotelarik. Hala ere, amak konponbidea dauka zain, lasaitu eta malkoak lehortzen dituztenerako.

Jendearen lan gogorra, negarra eta malkoak dakuskit, eta nire gupida mugagabea da. Zu entzuna izaten ari zara, baina gaurko zure kontzientziaren kontestuan ezer gutxi egin dezaket nik. Ni ezin naiz sartu ezjakintasunez pentsatu eta jardun dituzun urteetako lotura eta kateetan. Elizetan, ospakizunetan eta pulpitoetan sermoi ezjakinek sortutako mina dakusat. Nik, nazioak eta bertako jendea dakuskit balioek, kulturek eta ohiko erlijio sineskerek sortutako zailtasunak konpontzen. Jendeak egunerokoan dituen mugak dakuskit, bere beharren eta asmoen asetasun eza, eta mota guztietako erlazioetatik datorren oinazea.

Alde batetik beldurrak, gaitzondoak, haserreak, eta -desira grinatsuen, mendekuaren, eta agortzearen- turbulentsia emozionala ditugu; eta beste aldetik aipatu behar dira: inspirazioa eta iluminazio maila bat jaso duten guztien gupida, munduaren kontzientzia goratzeko erabakitasuna eta baldintza gabeko maitasuna bilatzeko ardura. Alde batekoek eta bestekoek, uztartuz, jario bat

osatzen dute; eta hain zuzen ere, horixe da munduan sortzen ari den kontzientzia kolektiboa.

Deitzen didan jendearengana hurbiltzen naiz, eta lan egiten dut duten larritasuna arintzeko, baina euren eskema mentala eta sineskerak hain biziki daude burmuinetan errotuta, ezen ene Egiak ezin baititu atzeman, gogamenetara ezagutza berria ekartzeko. Labur labur eta era ez-perfektuan bada ere, jende askok entzun du, baina adorea falta izan zaie ideia berriak onartzeko eta argi hitz egiteko. Gainera, ez da une egokia izan giza-kontzientziaren hesiak zeharkatzeko eta irakasteko. Baina orain bada garaia. Bibrazio-frekuentzien salbuespen berri batean sartu zara, eta horrek aise emango dizu alde zureko materialtasunetik goratzeko gaitasuna. Baieztapen hori arrarotzat har daiteke, baina bada energiei dagokien ezagutza erreserba bat, oraindik ere ulertzen hasi ez zarena. Une honetan ez dago lurreko gogamenik hori ulertzeko gai denik. Energia-espektra 'irudikatu' baino ezin duzu egin, baina hori ez da egia. Beraz, nire baieztapenak konfiantzaz onartzeak lagundu egingo dizu, baieztapen horiek egia direlako. Orain 'giza kontzientziari' dagozkion bibrazio-frekuentzia berrietan sartzen ari zara. Eta bibrazio-frekuentzia horiek, nik 1. GUTUNEAN deskribatutako garapen espiritual-mentalean aurrera egiten utziko dizute.

Urrundu naizelako berriro esan behar dizut: Ez duzu ihes egiterik -erein eta jaso- Existentiaren oinarritzko Legeetatik (zure pentsaeraren eta sentieraren inguruko legeetatik); era berean, zure mundu materialean ezin duzu elektromagnetismoaren legeetatik ihes egin, zeren elektromagnetismoa baita -erein eta jaso- LEGEA sortzen duen BULKADA; era berean, elektromagnetismoak formaosatzen du partikula energetikoen oinarritzko eremuaren barruan.

Eta horrela, ez da posible aldi berean dogma kristauan sinestea eta GUTUN hauei jarraitzea; guztiz okerrak direlako gurutzeko ene heriotzagatiko salbamenari, Trinitateari eta heriotzetiko Bepizkunde fisikoari dagokien dogma, intsentsua erabiltzea, eta otoitz finkoak; eta EGIA direlako orain GUTUN hauen bidez aurkezten zaizkizun egintzak. Dogma eta apaindura sakramentalak, zure arreta eta leialtasuna irabazteko aitzakiak deitu genitzakeenak dira, baina nire irakaspenen EGIA ilundu egiten dute.

Beraz, beharrezkoa zen GUTUN hauek idaztea.

Oraingo honetan, mundua zeruko asmo mental/emozional berri batean sartzeko orekan dagoenean, nik mundua atzemateko nuen aukera bakarra zera zen: gogamen harkor, esaneko, eta desprogramatu bat erabiltzea, instrukzioa jasotzeko eta nire partez esku lana egiteko.

GUTUN hauek eskaintzen duten modu bakarraren bidez jendeak bidea aurkituko du dimentsio espiritualera joateko; non giza-hutsegite oro disolbatzen den eta MAITASUNA baino geratzen ez den. Esan daitekeen beste edozer arrazionalizazioa eta giza arrazoi hutsa da -eta horiek ez dira EGIA.

Jendea, arazo zaharrak konpontzeko modu berrien bila dabil, batez ere Amerikan; baina BIZIAREN, egoaren eta Existentiaren Legeen benetako izaera ulertu arte, 'egoaren' tirakada baino ez dute indartuko, eta bere minak aurrera jarraituko du. Hurrengo orriotan zuretzat orain dela bi milurte hitz egin nuen Egia ximplea grabatzen dudan bitartean, gogora ezazu Egia horrek etengabea eta iraunkorra izaten jarraituko duela.

Beraz, Egiaren ulerkuntza sakontzea baino ez duzu posible, ez dago Egia aldatzerik.

Konturatu al zara, lehendabiziko bi **GUTUNAK** irakurri bitarteran, Palestinako jendeari hitz egiten nion guztia basamortuan jasotakoaren ondorio zuzena izan zela? Hots, **ezer solidorik ez izatea zela 'existentziaren errealtatea'?**

Gogoratu al duzu, nire egoera transzendente edo haraindikoa, harkaitzetara, areetara, mendietara, eta Itsaso Hilaren ur azpira begiratzean denak **'tantoen distira'** bezalakoa ematen zuela?

Harkaitza, area, mendiak eta ura, bata eta bestea ezberdintzen ziren soilik, 'tantoen distiran' zuten intentsitateagatik eta ñirñir barneko tantoen itxurazko dentsitateagatik.

Ez dago beste modurik lurrean nengoenean ikusi nuena deskribatzeko; hots, 'materiaren' benetako mamiari, ehunari, eta munduaren ustezko eraikitze solidoari dagozkien egitateak zabaltzeko.

Hizketa modernoan 'tantoen distirari' partikula-bibrazioa deituko litzaioke seguru asko. Agian, bi terminoak uztar litezke, eta oinarrizkoen ageriko 'errealtatea' 'partikulen distira' bezala deskribatu. Azken termino honek partikulak 'dantzan' ikusi nituen 'goritasun distiratsuen' zentzua adierazten du.

Lehen aipatutako guztia, Palestinako jardueren txostenaren sarrera gisa esan ondoren, orain bi mila urteko egun batera eramango zaitut; egun eguzkitsu, oskarbi eta urdin batera. Muinoetara igotzen hasi nintzen nire dizipuluekin atsedena hartu, mediatu eta otoitz egiteko asmoarekin.

Baina hori ez zen gertatuko. Alde egitea pentsatu genuen, baina jendeari gure asmoak zeintzuk ziren esan arren, lagun batzuek jarraitu ziguten lehenik, eta horiek gero beste batzuei abisatu zieten eta mendietara gindoazela esan zieten. Beren etxeetara itzultzeko erregutu bagenien ere, pixkanaka gero eta jendetza handiagoa elkartu zen, tarte bat utzita atzetik zetorrena. Berekin hitz egin nezan eskatzen ari ziren behin eta berriz. Beharbada galdetuko duzu zegatik zeuden hain gogotsu niri entzuteko.

Senez bazekiten BIZIAREN hitzak nituela esateko.

Beti erakusten nien Aitaren jarduera euren inguruan, eta horrek itxaropena ematen zien eta mundua ikuspegi berri batez ikusten laguntzen zien.

MAITASUNAZ hitz egiten nien eta bihotz altxatuak sentitzen ziren.

Banekien ulertuko zidatela eta nirekin bat etorriko zirela eta horregatik zera esateko gai izan nintzen:

- 'Zatozte', nekatuta eta larrituta zaudetenok, eta atsedena emango dizuet. 'Nire uztarria eramangarria da eta nire zama arina' Bazekiten nik hitz hauek esatean, sarritan egiten nuen bezala, alderatzen ari nintzela alde batetik, judutar nagusien legeak eta arauak, eta bestetik nik herriari aurkezten nion Egia.

Beraz, jendeak irakasteko erregutua izan nintzenean, zer egingo nuen, ba? Haien aurrean, gorago, harkaitz baten gainean eseri eta irakatsi.

Argi zegoen niri entzutera hain urrutitik etorri baziren gogoratuko zuten zerbaite entzungo zutela, eta gerta zitekeen horretaz bizitza osoan hitz egitea.

'Aita' eta 'Aitaren Maitasunari' buruz esan nien guztia jaso arren, oraindik 'Jainkoak' arbuatuko zituelako beldur ziren; nik aipatzen nuen 'Aita', gurtzen zuten 'Jainko' pertsonalizatua ez zela uler zezaten ahaleginak egin arren. Oso ondo nekien nahastuta zeudela. 'Aita' beren baitan zela behin eta berriz esan banien ere, nire hitzetan sinestearren bekatu egin ote zezaketen kezkatuta jarraitzen zuten.

Egun hartan zer irakatsi behar nien galdetu nion 'Aitari'. Gero muinoan behera, artzainaren begiradapean, bazkatzen ari ziren ahuntz eta ardiei so egin nien; eta orduan, burura etorri zitzaidan egun

horretarako mezua. Zutik jarri eta oihu egin nuen jendetzaren atzeko aldean ere entzun zezaten.

- Begira ardi eta ahuntz horiei, muinoetan bazkatzen ari direnei. Ardiak alde batean eta ahuntzak beste aldean daude.

- Kontuan har itzazue ardiak! Eraman handikoak eta baketsuak dira kideen artean, baita arditegiaren bazter batean trinkotuak daudenean ere. Lasai bazkatu bai, baina ez dute inoiz erreklamatzeko euren ez den lurra; larrea motz uzten dute, baina ez kaltetua, eta belar gaina zapaldu dutelarik berreskuratzen uzten diote. Eta garrantzitsuenak: artzainaren ahotsa aditzen dute. Eta horrexegatik berak zaindu egiten ditu. Larrerik onenera eramaten ditu eta haiekin lo egiten du gauetz txakurren edo lapurren mehatxurik edo erasorik ez jasotzeko.

- Begira ahuntzei! Nola dabilzan harkaitz gainean borrokan eta jauzika, eta nola sartzen diren leku zail edo arriskutsuetan. Sasiak eta zuhaitzen hostoak irensten dituzte. Gizakiarentzat erabilgarriak ez balira ahuntzentzat ez legoke tokirik, egun osoan loturik egoteko edo basamortura baztertuak izateko izan ezik.

- Horra, behera begiratzen dizuet, eta badakit zuen artean ardi asko daudela -eta baita ahuntz asko ere. Haserre marmar batzuk entzun ziren, baina, oro har, jendeak batak bestea bultzaka eta adar joka ari ziren adetasun handiz. 'Ahuntzak' seinatuak izan ziren, eta barre egin zuten buruarekin baietz esanez. Ona zen jendea barreka ikustea, eta aurrera jarraitu nuen:

- Ardiak ezagunak dira beren familiengatik, auzokideekin tratatzeko duten moduagatik, eta komunitate osoak ikusten dituen moduagatik. Ahuntzak ere modu berean ezagututa daitezke - Lagun asko ote dute?

Jendearen oihu ozena entzun zen: - E-e-ez! -barre algaraka.

- Artzainak ahuntzak zaintzen ditu ala ahuntzek beren burua zaindu behar dute, gauetz bakarrik etxera heldutakoan jaitsiak izateko?

Jendeak barreka erantzun zuen hamaika modutan, batzuek oso erantzun barregarriak eta argiak.

Eta horrelaxe izaten da ardi diren gizakiekin eta ahuntz direnekin ere, -ardi direnek '**Aitaren**' babesa jasotzen dute; eta ahuntz direnek ez, egunero beren desirak jarraitzen dituztelako burugogorkeriaz, atzetik suntsipen aztarna utziz seguru asko.

Esadazue! - '**Aitak**' babestu ahal du ahuntza dena? Jendea isil-isilik, baina adi-adi ari zen entzuten.

- Esango al duzue orduan '**Aita**' haserre dagoela ahuntzekin eta ez dituela babestu nahi, edo bestela esango al duzue artzainak ardiak zaintzen dituen bezala ahuntzak ere zainduko lituzkeela utziko baliote? '**Aitak**' berdin maite ditu ardiak eta ahuntzak, baina ezin ditu berdin zaindu ahuntzen berezko '*jokabideagatik*'.

- Begiratu orain ardien eta ahuntzen elikatzeko ohiturak. *Ardien urdailak erabat diseinatuta daude belar mota bat baino ez jateko, eta hori pozik onartzen dute. Baina ahuntzek topatzen duten edozer jaten dute, duten gorpuzkera errespetatu gabe.* Horrelaxe gertatzen da gogamenaren elikadura errespetatzen ez duen jendearekin, zeren ez baitauka inolako helmuga jakinik edo helburu garbirik. Ahuntzek bezala, ez dakite beren elikadura mentala noiz den kaltegarria, ez dakite elikadura horrek egunerokoan joan behar ez duten tokira eramaten dituela; edo mito kaltegarri batera nahiz iruzur arriskutsu batera bultzatzen ote dituen.

Sasien, zapata zaharren, ehun zatien, hostoen, kardoen edo belar txarren baliokide mentala jasotzen doaz noraezean, zentzu komuna falta dutelako.

Gizon batek oihuka esan zidan:

- Maisu, eta pertsona bat 'ardia' bada, huts egiten badu, eta nahaste batean sartzen bada, abandonatu egingo al du 'Aitak'?

Galdera batez erantzun nion:

- Zer egiten du artzainak bere ardietako bat sakon batera edo amildegira erortzen bada, edo sasi artean harrapaturik geratzen bada? Esan egingo dizut. Artzainak artaldea utzita berehala joango da ardi galduaren bila, eta ez du etsiko osasuntsu eta salbu atzera ekarri arte. 'Aitak' berdin jokutzen du - ardiarentzat ezinezkoa da behin ere nolabait hutsik ez egitea, -baina ziur egon zaitez 'Aitak' berehala beeka ari den ardiari erantzungo diola eta berrerosi egingo duela. Eta ahuntz bat ardia bezala jokutzen hasiko balitz eta artzainaren ahotsari adi egongo balitz, orduan ahuntz hori ere artzainaren babespean egongo litzateke, eta ardiak bezala zainduta egongo litzateke.

- Horrelaxe da zurekin eta Zeruko Erresumarekin -Jainkoaren Erresumarekin.

Ahots batzuk entzun ziren Jainkoaren Erresumaren esanahia konta niezaien eskatzeko. Esaten ari natzaizuna ez da inoizko profetari entzun diozuna bezalako.

- Ez saiatu diotsuedana ulertzen Judu Maisuek esan dizuetenaren arabera pentsatuz.

Eskrituretako errepikatu baino ezin dute egin, eta Jainkoaren edo Zeruko Erresumaren inolako ezagutza pertsonalik ez dute.

- Jainkoa ez dago tokiren batean sartuta toki guztietan baizik, zuen gainean diren zeruak eta airea bezala.

- Hitz Santuak egia esan zuen honela mintzatu zenean: 'Jainkoarengan bizi zara, mugitzen zara eta berarengan duzu zeure izatea'. Zeren eta Jainkoaren Erresuma zuen gainean, inguruan eta barruan ere baitago -eta Jainkoaren Erresuman sar zaitezke.

Jendea eroapen edo pazientzia gutxirekin hasi zen oihuka:

- Baina, zer da hori?

- Gogamenaren eta bihotzaren egoera bat da, zeinaren jabe osoa -zuen 'Aita'- 'Jainkoa' den. Egoera horretan zaudetenean, 'Aita' da zuen gorputzaren burua; eta, berak zuzentzen du egiten duzuen guztia eta zuen bizitza osoa.

Pertsona batzuk marmarrean:

- Nola izan daiteke hori?

- Posible da egoa -desira egoistetatik, etsaitasunetatik, haserreetatik, maiterreetatik, gutzietatik, eta mendeku-desiretatik- hain hutsik izatea, ezen Jainkoaren kontrolpean soilik geratzen den zure gogamen eta bihotz barrua.

- Eta gero zer gertatzen da? galdetu zuen emakume batek.

- Gero izatearen Egoeran sartzen zara, eta hori 'Jainkoak zuzendua izatea' da. Guztiz ederra eta aintzagarria da, Maitasuna da, eskuzabaltasuna da, gainerakoak zaintzea da zeure burua zaintzen duzun bezala; ez epaitzea da, besteak diren bezalakoak izatea onartzen baituzu Jainkoaren 'seme-alabak' ere direla jakiteagatik, eta berdin berdin Jainkoaren zaintzapean daudela jakiteagatik. Neurri gabeko zorientasuna da, deskribaezina, munduaren edertasunari buruzko alaitasuna sentitzea da, mugagabeko bizia eta areagotutako energia da, osasuna da eta zure behar

bakoitzaren asetasuna da horrelako beharrik izan aurretik ere.

- Rabinoek zergatik ez dizkigute gauza horiek kontatzen? Kexuka zioten pertsona batzuek.

- Neuk baino ez dudalako 'AITA' ikusi, neuk baino ez baitakit nola egin ziren mundua eta Existentziaren Legeak. Eta nik gauza horiek guztiak dakizkidanez gero, zatozte nigana eta galdetu, eta nik, eman zaidan guztia jakinarazi egingo dizuet. Egia diotsuet –sinesten eta ulertzen baldin baduzue –eta egunero nire hitza praktikan jartzen baduzue- gizateriak pairatzen duen tribulaziotik aske geratuko zarete. Sufritzen duzue ez dakizuelako nola izan zineten sortuak, ezta zeintzuk izan ziren zuek jaiotzeko benetako asmoak.

- 'Aitaren' semea / alaba eta oinordekoa izateko jaio zineten. Baina, Erresumaren aintza osoari bizkar ematen diozue, eta gozamina lurreko gauzetan bilatzen saiatzen zarete. Hori egiten duzuen bitartean inoiz ez duzue Jainkoaren Erresuma aurkituko, ez zarete Zeruetako Erresuman sartuko.

-Eta nola sartuko gara Erresuman?

- Esan ez dizuet, ba! Bihotzean eta gogamenean zareten guztiaz damutzen zaretenean, **Zeruetako Erresuman** sartuko zarete. Zuen gaitza 'Aitari' eramaten diozuenean eta barkamena eskatzen diozuenean, eta pentsamendu, hitz eta ekintza gaiztoak garbituak izateko indarra eskatzen duzuenean, azkenik horiek guztiak desegin ditzazuen-; orduan ziur egon zaitezke Zeruetako Erresuma aurkitzeko moduan egongo zaretela. Hori lortzen duzuenean ikusiko duzue besteekiko dituzuen jokabideak aldatzen direla, zeren 'Aita' zuen barruan ari baita, bere Maitasun Lana egiten.

- Aske egongo zarete munduan lehen lotu eta gatibu egiten zintuzteten desira eta egintza gaiztoen kate eta loturetatik. Areago, 'Aitak' zuen behar guztiak asetzen dituela ulertuko duzue.

Emakume batek oihuka: - Beharra daukat oraintxe, Maisu. Gose naiz.

Jendeak barre egin zuen, baina gero ahots gehiago entzun ziren harekin bat eginez eta zera esanez:

- Ordu askotan egon gara zurekin, asko ibilarazi gaituzu irakatsi nahi izan diguzun arte. Ardi onak garela erakutsi dizugu. Ez al diguzu gosea kentzen lagunduko? Konturatu nintzen egia esaten ari zirela eta beraienganako halako gupida sentitu nuen. Sendatzeko ez ezik egia -'Aitak' niri eman zidan bezala- jakin nahi izateko ere jarraitu zidaten. Esana nien 'Aitak' behar guztiak asetzen zituela. Horixe izango zen fedearen ahalmena eta 'JAINKOA' den **Ahalmena** erakusteko aukera bat. Ezinezkorik ez zegoela erakutsiko nien, nik sinesten eta sentitzen nuen bezala benetan sinesten duzuean.

Ikasleei hurbiltzeko hots egin nien eta eskatu nien inork jatekorik ba ote zeukan begiratzeko. Ogia eta arrainak zeuzkan haurra aurkitu zuten, eta ekarri egin zizkidaten.

Jendartetik aldendu nintzen pixka bat, ogiari eta arrainei lasai begira; **banekien** 'Jainkoa' – **Ahalmena** – **Gogamena** baino ez zirela, hau da, ikusgai egindako materia ororen substantzia.

Banekien Jainkoa-Ahalmena-Gogamena nire kontzientziaren barruan mugagabea eta gaitasun handikoa zela.

Banekien 'Aitaren' izaera beharraren asetasuna dela.

Elikagaia bedeinkatzen nuen bitartean, AHALMENA osorik isurtzen sentitu nuen nire gogamenaren, gorputzaren, eta eskuen bitartez; eta **banekien** jendea asebeta izango zela. Ez nekien nola, baina jakin banekien.

Gero, janari otzarak eraman nituen eta banatzeko esan nien dizipuluei, eta erabat ziur nengoen mundu

guztiak behar adina janari izango zuela.

Janaria zatitu eta pasatu ahala, biderkatu egiten zen harik eta jende guztiak jan eta asean izan arte. Azkenean, hondarrez betetako zenbait otxara bildu ziren.

Eta horrela zera erakutsi nuen:

< 'Materia' -unibertsoan begi bistakoa den guztia- **tantoen bibrazioen bidez** (partikulak, zientziaren arabera) **ikusgai egindako gogamen / kontzientzia** dela.

< **Gogamen / kontzientiaren** energiak gaitasun handiz zuzendutako, disziplinatutako, eta fokatutako mugimendu-irudien ondorioz, aldaketak gertatzen direla 'tantoen bibrazioan' eta beraz 'materia'.

< **Gizaki bat gainerakoei on egiteko 'kontzientzia amultsutik' soil-soilik ari denean, munduaren barnean 'AITAREN' Lan Amultsuaren muga bakarrak SOILIK DIRELA LAN HORRETAN GIZAKIAREN GOGAMENAK IPINTZEN DITUENAK.**

< Aipatu aldaketak soilik gerta daitezkeela gizakiaren kontzientzia 'Aitaren Kontzientzia Unibertsalarekin' harmonia perfektuan eta bat eginda dagoenean.

Jendearen eta ene dizipuluen artean harridura zabaldu arren, jendeak janaria modu horretan jaso zuenean, haietako inork ere ez zuen ulertu nola gauzatu zen horrelako gauza bat.

Inoiz ikusitako mirariarik handiena zela ondorioztatu zuten. Ni Jainkoaren Semea nintzelako sineskera ere berretsi zien mirariak.

Behinola, zuhaitz baten azpian eserita nengoen Betesda inguruan, eta gaixoak sendatzera ekarri zituen jendea nuen inguruan. Beti bezala, harriturik geratu ziren gaixo horiek bizitzara eta osasunera itzultzen ikustean, eta halako mirariak nola egin zitezkeen galdetzen zuten.

Berrito, **Fedearen Ahalmena** ulertarazten ahalegindu nintzen.

Ebanjelioetan, nik zera esan nuela baieztatzen da: Gizaki batek ziape hazi baten neurriko fedea izango balu, mendiak mugiarazteko gaitasuna izango lukeela.

Baieztapen hori okerreko interpretazioa da esan nuenaren gainean. Eta dizipuluek eta ebanjelistek nire irakaspenetatik zer gutxi ulertu zuten adierazten du lurrean izan ginenean.

Ziape hazi baten neurriko fedea izateak zer esan nahi du?

Nola neur liteke fedea modu horretan?

Fedea fedea da.

Fedea, gogamenean 'erabateko uste sendoak izateko gaitasuna' da, gogamenaren beraren jabe egiten da, eta ezin da 'neurriaren' arabera ulertu.

Fedea –zerbaitetan sinesteko daukazun beharrak sortzen du, sineste horrek zure asmoetarako nolabait balioko duelako – sendoa eta indartsua izan daiteke, baina inoiz ezin da ontzat jo 'neurri' konzeptuaren arabera.

'Sinesmena' are indartsuagoa da. 'Sinesmena' zerbait logikaz eta entzunez jakitearen fruitua da. Entzun edo irakurri duzuna egia dela konbentziturata zaudelako, entzun edo irakurritako horretan sakoneko 'sinesmen' bat garatzen duzu. Zuk egia dela uste duzu. Edozein kontraesani aurre egiten dion moduan sinesten duzu erabat.

Etengabe esaten nion jendeari: 'Sinetsi jasoko duzula, eta jaso egingo duzu'

Hala ere, nik orduan banekien ia ezinezkoa izango zela jendeak egunen batean mirariak egiteko fedea izatea; gutxienezkoa baitzen zenbat aldiz azalduko nien Egia. Haiek ez zuten inoiz izango basamortuan eman zitzaidan sakoneko ezagutza sendoa.

Baina orain, neurri batean kontatzean nire egonaldiaren historia Palestinako lurraldean, nik nahi dut zu, ene irakurle hori, iluminazioaldian eman zidaten ezagutza sentitzen eta ulertzen has zaitezten; horixe da ene asmoa.

Nire asmoa zuri **ezagutza** ematea da. Zer da zerbait entzunez jakitea? Norbaitengandik entzutea da, baina ezin da egiaztatu benetan egia den ala ez.

Zer da ezagutza? Zerbait esaten zaizunean -edo irakurtzen duzunean- eta entzun edo irakurritako hori, orain bat datorrenez gogamenen modu logiko eta errealista batez erlazionatzen dituzun ezagutza guztiakin, eta modu logiko eta errealista horretaz ulertu eta sinetsi ahal duzunez gero, informazio berria ezagutza bihurtzen da. ZUK BADA KIZU orain dakizuna EGIA dela. ‘Uste sendoa’ daukazu.

Orain arte, zuetako batzuk ‘Jesukristorengan’ fedea izan duzue, baina haur apetatsuak bezalakoak izan zarete. Zuen fedea itsua eta erraz onartua izan da; hala ere, zalantza askorekin uztartua. Beraz, zuek egitea behar zenuten hura, ‘Jesusen’ menpe zegoen lana egin zedin. Baina egiaz, ‘Jesusengandik’ jaso duzuela sinesten duzuen gauza asko, ‘Jesusengan’ jarri duzuen fedeagatik izan da; eta fede hori ikusgai egin da eskatutako gauzen forma hartuz.

Nahiz eta ‘fede’ amarrugabe hori oso garrantzitsua izan zure ongizaterako, zuk, perfekziora doan bide espiritualean aurrera egiteko gai zaren horrek, gogamenaren eta ‘materiaren’ artean dagoen benetako **ezagutzan**, maila sakonago bat erdietsi behar duzu orain. Oinarri hori gabe, jendeak erlijio-mitoetan nahastuta segiko du, eta giza egoeraren miserian bahituta geratuko da.

Lurrean nengoelarik, jendeari Egia esan nion, baina gaizki ulertua izan zen etengabe. Fedeari buruz benetan esan nuena zera da:

- Begira zuhaitz handi hori. Irudika daitekeen hazirik txikienetik hazi da. Begira enbor sendoa, adarrak, hostotsua da, gero! **Itzelezko hazkunde hori guztia hazi txiki batetik atera da.**

- Nola gertatu zen hori? Nondik dator zuhaitzaren zur guztia eta apaintzen duen hosto mardula? Ez al da hori, egunero zuentzat egiten ditudan mirariak bezain miragarria? Jende gaixoaren sendatzea **‘AITAREN’** lan handia bada, ez al da hori bezain handia zuhaitz horren hazkundera? Galdera hauxe dut zuetzat -Zer da hazia? Esango al didazue? Ez, -ezin duzue; baina neuk esango dizuet.

- Hazia **‘kontzientziaren ezagutza’** duen izaki ttikia da. Bihurtuko den gauzaren **‘kontzientziaren ezagutza’** da. **‘Zeruko Kontzientzia Sortzailetik’** ateratako kontzientzia-atala da.

- **‘Aitaren Gogamenaren Ahalmenetik’** datorren gogamenaren ahalmen-atala da, zeina lurrean landatzean eta euriak ureztatzean, ageriko materiaren jantzen hasiko baita. Haziak bere baitan ageriko materia horren ezagutza du. Ezagutza hori egiazkoa, tinkoa, indartsua eta zuzena da. Hazian gorpuztutako auto-ezagutza hori **‘kontzientzian’** den uste sendoa da. Bizi-forma guztiak -fokaturiko auto-ezagutzatik- sortzen dira, **‘kontzientzian’** den uste sendo horretatik. **‘Kontzientzian’** den uste sendo hori da alde batetik, lur inanimatua eta harkaitzak eta bestetik, lur gainean bizi diren eta hazten diren guztiak banatzen dituen. **‘Kontzientziaren uste sendorik’** edo

'nortasunaren ezagutarik' ez denean ez dago hazkunderik. Lurraren eta harkaitzen barneko kontzientzia lotan dagoen 'Kontzientzia' bezala geratzen da.

- Beraz, eskatzen duzuen horretan sinetsiko bazenute,

ziape-haziak bere identitatea ezagutzen duen bezain indartsu,

egin zenezakete nahi izango zenuketen edozein gauza.

- Baldin eta gogamenaren baitan hazi bat eramaterik izango bazenute -zuen helbururik sentituen plan perfektionatua- eta inongo zalantzarik gabe jakiterik bazenute gozamen perfekturaino hazi eta heldu litekeela, hazi zoragarri hori berezko bizia hartzen ikusi ahal izango zenukete, eta laster zuen bizitzan manifestatuko litzateke.

- Eta ziurtasun osoz, bizitzaren mendiak mugiaraz zenitzakete, zuen bidea zeharkatzen duten mendiak; eta desira duzuen guztia lortzeko oztopo direnak... -zentsugabekeria eta gaizki-pentsatze momentuetan- zuek zeuek sortutako mendiak edo oztopoak.

- Kreazioa eta existentzia behintzat ulertuko bazenituzte, mugagabeko balentriekin eta alaitasun traszendentearekin bizi zenezakete bizitza askatasun osoan.

- Bilatu ulerkuntza, eta pixkanaka ikusiko duzue ulerkuntza zuengana etortzen. Jo ezazue unibertsoaren atea; hots, 'Jainkoa-Aita Unibertsalaren Kontzientziara' sartzeko aukera ematen duen atea; eta azkenean atea zabaltzen ikusiko duzue, eta munduaren sekretuetara sartu ahal izango zarete.

- Sinetsi baino ez ezazue egin, eta jaso egingo duzue.

Zera ere gogorarazten nien une oro:

- **Gogamen eta bihotz hutsekoek baino ez dituzte egingo gauza ahaltu horiek.**

Gaiztoek aurrera egin dezakete denbora batez, errege eta armada erasotzaileek eta beste batzuek egin duten bezala, gogamenetan gaiztakeria pilatuz; beren lana denbora batez egiten utzi zaie, zeren gaiztakeriak ere zenbait onura sortzen baitu, baina azkenean porrot egingo dute eta munduko gainerakoek beren izenen aurka irainak jaurtiko dituzte.

- Hortaz, arrakasta izan nahi baduzue, aztertu zeuen motibazioak.

Aberastasun edo erosotasun irrika-egoistatik soilik sortzen diren desirak desengainuan, gaixotasunean eta heriotzan bukatzen dira azkenean.

Eta nik zuri, hitz hauek irakurtzen ari zaren horri, zera diotsut: ez ukatu gero nik diodan Egia!; harik eta lurrean nik ibilitako Buruari-Uko Egite-Bidea ibili arte; eta, harik eta daukadan 'AITAREKIKO' batasun bera eta ezagutza eta ulerkuntza maila nabarmena zeuk lortu arte. Hori guztia lortzen duzunean, ez duzu inolako gogorik izango nik diodan Egia ukatzeko; eta nirekin bat egiteko poza ezin gorderik, lagun hurkoari irakasteko prest egongo zara. Une hori heldu arte egon zaitetz bakean, eta ez dezala gizaki batek ere zure ezjakintasuna ezagut.

Maiz, munduan zehar jendeak gustura besarkatzen ditu ene irakaspenak, duten moralitate gorenagatik eta eguneroko jokabide onaren printzipioak formulatu diren perfektuenak izateagatik. Hala ere, berehala gaineratzen dute mirarien historiak kendu egin behar direla, zeren ez baitira posible lege naturalen halako zentsugabekeriak.

Pentsamendu mota horrek harresiak altzarazten dizkio etorkizuneko garapen zientifiko-espirtualaren

aurrerapenari; zeinaren gaitasuna giza gogamenak baduen.

Egia esan, ez nintzen lurrera etorri erlijio berri bat aurkeztera edo Moisesek 10 aginduetan emandakoa baino kode moral handiago bat ekartzera. Nire asmoa zera izan zen: sortzaile gisa ekartzea 'JAINKOAREN' pertzepzio edo hautemate berri bat, eta existentziaren beraren ulerkuntza zabaltzea. Ezagutza horretatik bestelako bizimodu bat sortuko zen.

Hirugarren milurteko honetan, lurreko nire misioaren aurrean izan beharreko jokabide zuzena da aitortzea une honetan nik egin nituen 'mirariak' gizaki arruntaren gaitasunetik haratago daudela. Hala ere, aipatutako 'mirariak' etorkizunean lor daitekeenaren adibideak izan ziren; existentziaren benetako ezagutzaz jendearen gogamenak erabat jabetuta egoten direnean, eta 'Bizia / Maitasuna den Kontzientzia Unibertsalaz' -fedearen, meditazioaren eta otoitzaren bidez- erabat sintonizatuta eta jabetuta ere egoten direnean.

'Ur gainean ibili nintzelako kontua' benetan gertatu al zen nire dizipuluek zingira zeharkatzeko txalupa hartu zutenean?

Gertakari horren narrazio biblikoa irakurri baduzu, konturatuko zara dizipuluek atzean utzi nindutela. Giza harreman guztietatik apartatzeko aukera irrikatu nuen, muinoetara erretiratzea berriz ere meditazio sakonean sartzeko, nire kontzientziari bat egiten utziz 'Jainkoaren Kontzientzia' unibertsalaren dimentsioarekin.

Giza kontzientzia gainditzen duen egoera espiritual horretan egon nintzen bitartean, ezagutza fisiko oro desagertu egin zen, eta Biziaren Korrante Unibertsalaren barruan estasian igoarazia izan nintzen; eta BIZI UNIBERTSALA den-dena dela jakin nuen, BIZIA nire izatearen errealitatea zela, eta gainerako guztia ikusgai egindako BIZI UNIBERTSALAREN behin behineko itxura aldakorrek zirela.

Ni BIZIA BERA nintzela sentitu eta JAKIN NUEN, eta lurreko kontzientziatik haratago BIZIAREN KONTZIENTZIAN sartzean, ene izate fisikoa gobernatzeko zuten legeak gaindituak zirela, eta orduan ez zirela aplikatzen nire giza gorputzaren haragian eta odolean.

Egoera transzendente edo haraindik berri horretan ibiltzeko irrikitan nengoen, eta airean igeri leizezulotik irtetzen ikusi nuen neure burua. Dizipuluak zingiran ikusi nituen eta arriskuan zeudela jakin nuen. Ahalegin handirik egin gabe airean igeri jaitsi nuen muinoa ezponda aldera; eta nire giza zeregin arruntekin topo egiten hastean -kasu honetan nire dizipuluekin- ur gaina zapaltzen ari nintzela ikusi nuen. Hala ere, Ni Neu guztiz Bizi individualizatua izateaz ohartzeko nintzen egoeran nengoen oraindik; eta beraz, nire gorputza BIZI AHALMENAK bainatzen zuen; zeinak, egoera fisikoaren egitura atomikoa arintzen eta eraldatzen segitzen baitzuen.

Ulertu beharra daukazu alde batetik, giza kontzientziaren egoeran entzutea eta pentsatzea, eta bestetik, **BIZI UNIBERTSALAREN MANIFESTAZIO TRANSZENDENTEAN** igotzea -kontzientzia pertsonala gorputz egoeratik apartatuta eta 'Aitaren Kontzientzia Unibertsalean' erabat uztarturik dagoenean-, izatearen bi dimentsio erabat ezberdinetakoak direla.

Giza kontzientziak inspirazioa jaso dezake 'Aitaren Kontzientzia Unibertsaletik', baina hartzen den inspirazioa giza egoerarekin nahasten da eta askotan gaizki interpretatzen da, burmuina eta -beraz- prozesu mentalak kontrolatzen dituen ezagutza-biltegiaren arabera. Zoritxarrez gogor sustraitutako

sineskerak, jasotzen duzun inspirazioa **kutsatu eta distortsionatu** egiten dute.

‘HAUTEMATE eta KONTZIENTZIA-GAUZATZE EGOERA HARAINDIKOA’ egoera fisikotik sortzen, ateratzen denez gero, dagoeneko burmuina ez dago agintean. Jada ez dauka eraginik **‘Hautemate Egoera Haraindikoa’**, zeina Egia den bere baitan.

Jada, Egoera hori ez dago giza sineskerak kontrolatuta edo eraginda.

‘Benetan Izatez Denaren’ maila batean dago, zeina ageriko manifestazioaren eta existentziaren atzean dagoen; **‘Existentzia zer den Sinesten denaren’** giza dimentsioan egon beharrean.

‘Kontzientzia Egoera Haraindikoa’, **‘mirariak’** Lege Unibertsalaren lan normala baino ez dira.

Lur gaineko bizitzaren kontakizun honekin jarraitu baino lehen, berriro azpimarratu nahi dut unibertsoan dagoen guztia ikusgai egindako **KONTZIENTZIAREN EGOERA** partikularra eta indibidualizatua dela.

Nire **MAITASUN UNIBERTSALAREN KONTZIENTZIAREN EGOERA** honetatik jaitsi behar izan dut **berriz lurreko bizitza** esperimentatzeko, zeinak **-ezabatu ezinik- biziki grabatuta dirauen munduaren kontzientziaren energiaren baitan, zeina datorren bere sortze unetik.**

Ulertu beharra daukazu Palestinan nire gorputza utzi behar izan nuenean, atzean utzi nuela bizitza hari zegokion guztia.

Misioa betea neukan. Beraz, gurutzean hil nintzenean askatua izan nintzen, **ARGI** aintzagarrian igoarazia izan nintzen, **ARGIA** izateko, **ARGIAN** parte hartzeko, **ARGIAN** gozatzeko, zeina **Maitasun Unibertsala, Bizia, Edertasuna, Harmonia, Zoriontasuna eta Estasia** baita.

‘KONTZIENTZIA’ MAILA EZBERDINEN ARTEAN MUGITZEA ez da ikasgai erreza edo atsegina.

Palestinan hil nintzenean nire lurreko misioa osatu gabe geratu zelako nator orain berrez -aro berrian sar zaitezten- zuri laguntzera. Aro berri hori, lurrean existentzia indibidualizatuaren fase berria izango da.

Baldin eta zure bizitzan gertatu zen tristura sakonen bat gogora ekartzen baduzu, eta ia tentsio eta estres emozional maila berarekin erreakzionatzen duzula ikusten baduzu, beharbada ulertuko duzu zer esan nahi dudan aipatutako **‘gertaera horren deserosotasunagatik’**.

Igarotako sufrimendu edo penaren gainean hausnartzeak negar eragingo dizu, beharbada. Jatorrizko beheraldia eta larritasuna itzultzen sentituko duzu, oroitzapen hura burura berrez ekartzean. Beharbada jendearengandik aldendu nahi izango duzu; kontzientzia jaitsi zaizulako zoriontasunezko eta bakezko oreka-mailatik; berrez ere, sufrimentuaren hasieran sortu zenuen kontzientzia baxuko bibrazio eta formak esperimentatzeko.

Adore aldaketa batek zure kontzientziaren energien aldaketa adierazten du. Kontzientziaren bibrazioen gorakadak igotze mentala, emozionala eta fisikoa ekarriko dizu, eta zoriontsu sentiaraziko zaitu. Zure kontzientziaren bibrazioen beherakadak berrez, zure sistema osoaren funtzionamendua murriztuko du eta depresioaren hasiera nabarituko duzu -edo, behintzat, lehenago gozatzen zenuen baikortasunaren jaitziera. **Existentziaren egitate** bat azaltzen ari natzaizu.

Zure unibertso osoak kontzientziaren energia partikulen bibrazio frekuentzia ezberdinak manifestatzen ditu. Frekuentziak gora eta behera, maila batetik bestera mugitzean, **egitura fisiko eta agerikoek ere**

ezagutuak izan ziren, Erliio-Buruen kritika latza eta arbuioa izan arren. Are gehiago, maite ninduten eta errespetatzen ninduten, bai nik neure irakaspena bizitzeko moduagatik, bai hainbeste jende gupidaz sendatzeagatik, eta baita euren zoritxarreko bizitzei ekartzen nien erosotasunagatik ere. Benetan sinesten zuten **Jainkoaren Semea** nintzela. Nola hil zitekeen gurutzean Jainkoaren Semea? galdetzen zuten. Galderak egin ahala handiago zen izua. Sinestezina zen. Bizitzetan hutsune handia zabaltzen zela somatzen zuten – hutsune bat euren bizitzetan, eta krater itzela zapaltzen zuten lurrean, eta beren baitan ezegonkortasun ikaragarria eta helburu falta nabarmena. **Ez ziren so egitera ausartzen hitz egiten nien hurbileko gurutzilletari. Gertaera horrek bertan behera utziko zuen bihotz bihotzez sinetsita zeukaten guztia.**

Beraz, dizipuluek esaten nienari aurre egiten zioten hitz-jario handiz, eta behin eta berriro baieztatzen zuten horrelakorik ezin zela inoiz gertatu. Beren burugogorkerien aurka irmo jarri nintzenez, azkenean argudioetan etsi zuten, eta itxuraz behintzat horrelakoak gerta zitezkeela onartu zuten. Nire heriotzaren ondoren berriz ikusiko nindutela esan nien eta nik hasitako lanarekin eurak jarraitzea espero nuela.

Nik dizipuluengan sortutako min eta eztabaidek neuri ere sakonki eragin zidaten. Patua zain neukan tokira, Jerusalemera, joatea ez zen zeregin erreza. Edozeren gaintik, neure buruari galdetzen nion nire erresistentziaren erronkari eutsiko ote nion. Egoera fisikoa orozgainditzeko, **Aita Unibertsalaren Kontzientzian** sartzeko eta bertan hil arte geratzeko gai izango ote nintzen? Batzuetan zeharo izaturik egoten nintzen probaren aurrean, baina ez nintzen ausartzen beldur hori dizipuluei adieraztera.

Beraz, guztiz sentimendu nahasiak nituela ekin nion azken bidaiari -Jerusalem aldera-. Alde batetik, sendatzen, hitz egiten eta irakasten nekatuta nengoen, kontatzen nuenaz batere ulertu gabe ahozabalik entzuten zuen jendeari.

Pentsatuta neukan nire ezagutzak miseriatik ateratzeko gaitasuna emango ziola jendeari eta, behintzat **'Aitarekin'** kontaktua egitea eta **'Zeruetako Erresumaren'** argitasun bat lortzea ekarriko ziola. Horrelako iratzartze espiritualik ez zen nabarmendu, ezta dizipuluen artean ere.

Nire etsipenak eta porrotak pozik jarri ninduten lurreko bizitzatik aintzazko existentzia aldera joateaz; eta banekien zain neukala heriotzaren ondoren.

Aldi berean, gurutzilletaren oinazeari nola eutsiko nion galdetzen nion neure buruari.

Misioan zehar, gutxi gorabeherako egoera mental baketsuan bizi izanda negoen, maiz pozez zoraturik, nire pentsamenduak guztiz ezarriak **'Aitaren Kontzientzia Amultsuan'**, zeina izate ororen egilea baita, - eta banekien eskatu baino ez nuela egin behar, eta eskatutakoa berehala gauzatua izango zela-.

Orekari eusteko gai izango ote nintzen Kontseiluaren aurrera eta gurutziltzera eramana izatean, eta gurutzean iltzatu ondoren gorputzaren pisu guztia eskuetatik zintzilik izatean?

Zalantzei eta beldurrei leku egiten niela eta, nire kontzientziaren frekuentzia-maila normala jaisten ari zitzaidan lur-planoko kontzientziaren frekuentzietaraino. Berriro izan nintzen zentzugabekeriak egitera bultzatzen ninduen eraso zaharraren biktima; nik hori ez nuen inoiz gogoan hartuko lehen, **'Aita Maitasunaren Kontzientziarekin'** harmonia osoan nengoen aurreko egoeran. Nire zalantzak eta gatazkak bizitzan azaleratuak izan ziren **Maitasunaren Lege Kosmikoaren** aurkako emozioak eta giza bulkadak bezala.

Lehendabizi, pikondoaren pasartea gertatu zen. Gose nintzen, eta benetan fruiturik espero gabe joan nintzen zuhaitzera pikuak biltzeko garaia ez zelako. Bila ibiltzea 'alferrikakoa' zela ikustean, madarikatu egin nuen pikondoa. Hogeita lau ordu geroago, sustraietaraino ihartuta zegoen.

Esperientzia izugarria izan zen. Lehenengo aldia zen nire hitzek zerbaiti kalte eragin ziotena.

Hala ere, argi eta garbi erakutsi zien dizipuluei PENTSAMENDUAREN indarra zenbaterainokoa den, bai onerako, bai txarrerako. Horrek erakutsi zien, pertsona bat zenbat eta eboluzionatuagoa izan orduan eta handiagoa dela bere hitzen eragina ingurugiroan.

Dizipuluei pentsatu gabe jokatu nuela adierazteko aukera baliatu nuen; hain zuzen ere, gizon edo emakume arruntek egiten duten bezala, *-itxaropen handia izanda- nahi dutena lortzen ez dutenean.*

Haserre, negarrez, eta hitz zorrotzen bidez ere erreakzionatzen dute; zeintzuk izan daitezke edo ez 'gaizki-opatze' edo gaizki esate moduko bat, beren bihotzeko gogoak ukatu dien pertsonaren aurka. Dizipuluek ikusia zuten nire madarikazioak zer egin zion pikondoari. Zera ulertu behar zuten: alde batetik, indar handiko uste sendo batek, desira edo irudika zezaketen edozer ekar ziezaiekeela; eta bestetik, etengabe euren egoera mental-emozionalaren jabe izan behar zutela. *Ez zutela ezinikusirik gorde behar besteen aurka, bestela kalte handia eragin ziezaieketela gaitzondoa zieten guztiei. Agudo agudo barkatzea zela egin behar zutena, bestela gaitzondo hori, behar den denbora igarota gero, itzuli egingo zitzaiela ereindakoaren orde zuzta bezala.*

Areago, ereiten den bezala jasotzen da uzta. Banekien pikondoari egin niona -ekidinezina zen-modu batera edo bestera itzuliko zitzaidala.

Dizipuluak Tenplura eramane nituen. Urte asko pasatuak ziren han egon nintzenetik, eta banekien bisitak balioko zuela, gurutzilketara eramango ninduten gertatu-beharrekoak gertatzeko. Pertsona batzuek ezagutu egin ninduten eta egindako eskaerei erantzunez irakasten jarri nintzen. Pertsona gehiago bildu ziren, eta mailegu-emaileak pilatu eta kexatzen hasi ziren. Beren oihu eta kexa zaratatsuek nire pentsamenduaren haria eten zuten.

Bat batean, haserre bizia erakutsi nuen; nire inguruan BIZIAREN hitzak entzun nahi zituzten pertsona zintzoak zeuden; baina laster ezin izango nizkien kontaktu. Eta hor mailegu-emaileak zeuden, jendeari on egiten ez zioten sakrifizioetarako abereak saltzetik bizi zirenak. Gizon horiek jendeari zorrak eta miseria baino ez zizkieten ekartzen. Odola burura igotzen sentitu nuen, eta mahaiak bultzatuz bota eta dirua lurrean sakabanatu zen, eta diruan baino pentsatzen ez zuten bihotz gogorreko gizonak kanporatu egin nituen Tenplutik.

Orduan izugarrizko iskanbila zaratatsua egon zen. Batzuek borroka egin zuten dirua jasotzeko. Mailegu-emaileek sekulako madarikazioak bota zizkidaten eta gaiztotzat salatu ninduten Beltzebu eta beste hamaika deabruren lana egin banu bezala. Apaizak eta Fariseoak, eta Tenpluko sakrifizioak asko estimatzen zituzten guztiak, batera lasterka etorri ziren zarata eta nahasmenaren zergatia jakiteko.

Mailegu-emaileek kontaktu zutena entzutean, nire ekintzengatik hain zeuden irainduak, ezen ene kontrako kondenazioan eta lamentazioetan hasi baitziren, batak besteak baino oihu handiagoak eginez Apaizak liluratzeko. Ikara erakutsi nahian -nik egindakoa egin nuelako-, gero eta gaitzezpen gogorragoak egin zituzten. Tenpluan ez zegoen horrelakorik ikusita.

Lehendik ezagutzen nindutenak ere minduta zeuden nire asmoagatik, eta galdetzen zuten beren baitan zer-nolako gizona ote nintzen ni. Elkarrekin eta zutik zeuden gertaerak ikusten; eta orduan Apaizak eta Fariseoak hurbildu zitzaizkien; eta ni, sinesten zuten guztia suntsitzen saiatzen nintzela esan zieten eta limurtu egin zituzten. Hain zuzen ere, nik sasi 'Jainko' bat predikatzen nuela, sinagogetan beti entzuna izan zutenarekin zerikusirik ez zuena. Apaizek, zuten neurri gabeko haserrea helarazi zioten jendeari; eta nire erokeriak entzuten jarraituz gero, nire bekatuak kutsatuko zuela sartu zioten buruan jendeari.

Eta pixkanaka zera sinesterazi zioten jendeari: Ni eragin gaiztoa nintzela, eta herriaren bakea asaldatu baino lehen eta Palestina herri osora erromatar gobernadorearen sumindura bizia erakarri baino lehen, erditik kendu behar nindutela.

Dizipuluak, nik egindakoagatik lotsaturik, isil-isilik eszena utzita kaleartean ezkutatu ziren Tenplutik tarte batera. Geroago, ni nengoen tokira itzuli zirenean, argi eta garbi erakutsi zuten guztiz haserre zeudela nire ekintzengatik; galdetzen zuten ea sena galdua ote nuen, edo zoratu egin ote nintzen nire heriotza profetizatuz eta gero seguru asko hori eragingo zuten gauza berberak eginez. Momentu horretantxe Judas -zeinak inoiz ez baitzien uko egin judutar sineskeriei- zalantzatan hasi zen ni Mesias ote nintzen azken batean. Hiru urtez neraman herriari irakasten, baina erromatarren nagusitasuna ez zen batere murriztu. Hiru urte pasa ondoren, jendea ez zegoen hurbilago hitz eman nien zorionetik. Eta orduan, antza, bakearen nahasle bihurtzear nengoen –Erromaren sumindura jendearen buru gainera ekarriz.

Juduen Apaiz buruak suntsitu nahi ninduela jakin zuen Judasek, eta beraz, bere zerbitzuak eskaini zituen nire pertsona identifikatzea eskatzen zenerako.

Dizipuluekin pazkoa ospatzeko orduan denok batera areto handi batean afaltzea planeatu nuen. Banekien azkenekoz jango nuela lurrean. Ez dut gau hartako kontzientziara itzuli nahi sakonki. Oso **goibel** nengoen hain ongi zerbitzatu ninduten dizipuluak uzteagatik. Nire tristeziak beldur eta gatazka guztiak ekarri zizkidan. Une batzuetan erruki-emozional sakona sentitu nuen neure buruaz. Nire herriaren alde egin nituen ahalegin guztiak, eta beren alde egiteko prest nengoen sakrifizioa inork ulertzen ez zituela sentitu nuen.

Israeldarrek Egipton, basamortura ihes egin aurretik, eman zuten azken gauaren historia bizia kontatzen ari zen Juan. Moisesek familia buruei eman zizkien instrukzioez ari zen; instrukzioetan esaten zen orbanik gabeko bildots bat hiltzeko, modu jakin batez prestatzeko, eta odolarekin israeldarren bizilekuen ateburuak pintatzeko; zeren gau hartan bertan aingeruak etorriko baitziren egiptiarren oinordekoak eta abereak hiltzera. Gogo handiz, gogoratu zuen Juanek egiptiarren iskanbila, esnatzean etxe bakoitzeko oinordekoa odoletan aurkitu baitzuten. Bat bera ere ez omen zen salbatu.

Historia mota hori arbuiatu egiten nuen ez zuelako inolako baliorik goreneko Egia espiritualaren bila zebilen pertsonarentzat. Neure buruari galdetzen nion dizipuluek benetan zenbat ulertzen zuten hitz egiten nienean guztien **Zeruko Aitaz** eta gizateriarenganako Bere Maitasunaz. Nola berotu ahal ziren 'aingeruen' pentsamendurekin, Egipziarren oinordekoak hiltzearekin, argi eta garbi entzunda zeukatenean '**Jainkoa**' '**Aita**', **Maitasuna** zela. Baina juduak beti arduratuta ibiltzen ziren odol isurtzeaz bekatuak garbitzeko.

Abraham ere, Israelitar nazioaren fundatzailea, konbentziturata egon zen bere seme bakarra basamortura

eraman eta hil behar zuela, gero Jainkoari sakrifizio gisa eskaintzeko. Pentsamendu pagano eta nazkagarria!

Tenpluko animalien sakrifizioetan pentsatu nuen. Izaki bizi guztiak maite nituenez, praktika hori niretzat – gorrotagarria zen. Eta laster, Egiaren hitzak esatera ausartu nintzelako, hiltzera eramango ninduten. Nire ezagutza transmititzen zer gutxi lortu nuen hausnartzen nuenean, neure buruari galdetzen nion zergatik utzi zen ene eskuetan halako misioa! Une batez, gaitzondo eta haserre espasmo bat sentitu nuen gizon horienganako ohiko maitasun sentimenduekin nahastuta.

Zinismo pixka batekin, zer-nolako oroigarri eraginkorra utzi behar nien ari nintzen hausnartzen, irakaspen guztiak berriz gogora ekartzeko ni ez egotean. Baldin eta '**Aitaren Maitasunari**' buruzko irakaspen guztiak hain arin ahazten bazituzten eta Pazkoako historia izugarri hori gozatu ni beraiekin oraindik ere aretoan nengoen bitartean, zenbat gogoratuko zuten ni gaizkile bezala gurutzean hiltzean modurik lotsagarrienean?

Gero zera gogoratu nuen: 'odol isurketak' hainbeste hunkitzen bazituen, odola emango niela ni oroitzeko! Burutapen ironiko horiek nituela, ogi bat hartu, zatitu, dizipuluei eman eta jateko esan nien. Ogia zatitzea eta etorkizuneko nire gorputz zatitua alderatu nituen, eta eskatu nien 'ogia zatitzea eta banatzearena' errepikatzeko; hori, nire gorputzaren sakrifizioa gogoratzeko modua izango zen EGIA ekartzeagatik; hots, JAINKOARI buruzko Egia, bizitzaren inguruko Egia, eta Maitasunari buruzko Egia ekartzeagatik. Ez ohiko umore arraroa neukala oharturik, jateari utzi zioten; eta adi-adi entzunez, ogia hartu eta isilik jan zuten.

Gero, kopa bete ardo hartu eta bakoitzak bertatik edan behar zuela esanez pasa nien, zeren nire odolaren ikurra baitzen, laster isuria izango zena **Existentziaren Egia** ekartzera ausartu nintzelako.

Ikusi nuen nire ahots etenak haietako batzuk hunkitzen zituela. Nork bere zurrutadatxoa neurritz hartu zuen eta gero kopa ondokoari pasatu. Baina oraindik ez zioten ezer. Nabaritzen zuten nik serio hitz egiten ari nintzela eta eztabaida gehiago ez nuela onartuko.

Gero, beretako batek traizionatu egingo ninduela esan nien.

(Nire baitarako, haren arrazoiak ulertu nituen, eta bera -jazo beharreko gertaeren sekuentzian-beharrezko pieza bat zela jakin nuen. Soil soilik, bere izaerak bultzatutako papera betetzen zuen. Banekien berak asko sufrituko zuela eta gupida sentitu nuen berataz. Baina nik pentsamendu horiek neuretzat gorde nituen.)

Euretako batek traizionatuko ninduela aipatzean, Judasi esan nion bere zeregina agudo egiteko; dizipuluak suspertu egin ziren eta galdetu zuten ea hura ote zen nirekin izango zuten azken afaria.

Atsekabe emozional handia zegoen, baita galderak eta gaitzezpenak ere, halako tranpa batean sartu nituelakoan. Berrito galdetu zuten zer egingo zuten euren bizitzekin nik alde egin eta gero. Isekagai izango zirela zioten eztabaidan. Inork ez zuen konfiatuko berriz beraien esanetan. Nire larritasunaren aurrean eman zuten erantzun egoistagatik erabat goibelduta, segurtatu nien ez zutela beldurrik izan behar euren segurtasunagatik. Abandonatu egingo ninduten, eta ez zen inolako konexiorik egongo beren eta nire gurutzilletaren artean.

Ni hil ondoren sakabanatzeko eta Galileara itzultzeko iradoki nien..

Pedro zeharo hunkitu zen eta bero bero erreakzionatu zuen inoiz abandonatuko ninduenik ukatuz, baina, jakina, abandonatu egin ninduen.

Gizakiengan sentitu nuen maitasun guztiaren ondoren, eta beren alde lortu nahi nuen guztiaren ondoren ere, oraindik ere ulerkuntza falta handia -baita erresistentzia gogorra ere- somatzen nuen nik neure beharra neukan une hartan. Zer gertatuko ote zitzaien, horixe zen zuten ardura bakarra. Hitz gozo bat ere ez zen egon, ez laguntzeko eskaintzarik, ezta gupidarik ere nire proba gogorragatik.

Gogorra zen gero, gizakiaren bihotza! pentsatu nuen. Zenbat mende penagarri pasatu beharko ziren gizateria bere min eta sufrimendutik haratago joan ahal izateko, agian eurak baino egoera okerragoan egongo ziren beste zoritxarreko batzuegan maitasun eta gupida distiraren bat sentitzeko?

Eta horrela, dizipuluen erreakzio egoistengatik guztiz etsita egon arren –baita minduta ere–, ulertu egin nituen dizipuluak, eta etorkizunari aurre egin ziezaioten adorea ematen saiatu nintzen. Beti berekin egongo nintzela bermatu nien, baita euren begi bistapean ez egotean ere.

Nik hasitako lana haratago dagoen bizitzatik bultzatua izango zen. Ez nituen bakarrik utziko. Nire Presentzia ezagutu eta nabarituko zuten eta horrek indarberritu egingo zituen.

Nirekin egon ziren garaiko oroitzapenei eusteko esan nien. Zera ohartarazi nien: askok emandako ezagutzari eutsiko ziotela, baina pertsona batzuek tradizioaren eta arrazoiaren ahotsa gehitu nahi izango ziotela nire irakaspenei. Nire hitzak hain itxuragabetuak izango ziren, ezen azkenean ez zuten jakinaraziko mundura ekarri nuen jatorrizko Egia.

Hori gertatuko zela esan nienean, haserretu egin ziren, eta ikarak ere harrapatu zituen. Lasaitu egin ninduen nire irakaspentak alferrikakoak izan ez zirela ikusteak, azken batean; ez zirela belarri gor hutsetan sartu, alegia. Gehiago kontatzeko eskatu zidaten, -baina eskuak altxatuta esan nien horixe zela esan nezakeen guztia.

Une horretan, lurrean egon bitartean esan nahi izan nuen guztia esanda neukala sentitu nuen; gizakiei egin beharreko diskurtsoa eginda zegoela. Sakonki irrikatzen nuen guztia zen isiltasunera erretiratzea eta bakea eta lasaitasuna aurkitzea '**Aitarekiko**' harremanean.

Afal-aretoa utzi eta Olibondoen mendira joan ginen oinez; baina dizipuluek barne-gatazkaz, beldurrez eta zalantzaz beteriko umorea zuten. Gehienek alde egin zuten Pazkoa ospatu behar zuten familiekin eta lagunekin elkartzera.

Lorategian haitz berezia zegoen, leize-zulo txiki baten itxura zuena. Horren barruan haizetik babestea gustuko nuen. Beraz, eseri eta otoitz egin nuen; eta lehenago gozatua nuen harmonia goratuaren barnean sartzeko bidea bilatu nuen. 'Aitaren Maitasunarekin' sintonizatzeko ahaleginak egitean banekien nire beldurrak disolbatu egingo zirela, eta guztiz konfiantza handiko egoera batean egongo nintzela bakez beterik berriz. Maitasunaren Ahalmena nire baitan sartzen eta nire kontzientziaz jabetzen nabaritu ahala, gainera zetorkidanari eusteko indarra ere jabetu zen nire bihotzaz. Azkenean arte gai izango nintzen Maitasunaren baitan egoteko, eta beste batzuei Maitasuna emateko.

Eta horrelaxe izan zen.

Saiatu ere ez naiz egingo epaiketa eta gurutzilketaren egoeran sartzen. Ez baitu garrantzirik. Azkenean, gurutzean hil nintzenean eta nire espiritua gorputz torturatutik erretiratu zenean, igoarazia

izan nintzen esaterik ez dagoen **ARGI** distiratsu baten barnean. **MAITASUNAREN** berotasunean eta pozgarrian bildua izan nintzen, lehen inoiz esperimentatu ez bezala. Gorespen inguratzailearen moduko sentipena nuen, lan ona egin izanaren ziurtasun sendoa, indar unibertsalean estasi-sentipena lanarekin jarraitzeko, eta lurreko kondizioak inoiz ezagut dezakeen edozerretik askoz gainetik dagoen alaitasun eta lilura sentipena. Bizimodu berri eta miragarri batean sartu nintzen; baina, noizbehinka kontzientzian jaisten nintzen atzean utzitako jendearekin harremanetan jarraitzeko.

Ni ikusi ahal izateko nahikoa sentsibleak zirenentzat neure burua erakuts nezakeen. Hala ere, Tomasek, ustez nire zaurietan hatzamarrak sartuko zituelako historia, zentzugabekeria hutsa da.

Dizipuluek ez zekiten Jose de Arimatearekin isilpean geratu nintzela, heriotzaren ondoren ene gorpua eramane zezan erabiltzeko zeukan bere hilobira, bertan ilundu aurretik olioztatuko zuena, ohitura zen bezala. Gero, ilundutakoan, Jerusalem den-denak 'sabbatha' betetzen ariko zirelarik, -zaldiz eta konfiantza osoko bi zerbitzarik lagunduta- nire gorpua gauez isilean, eta egunez ezkutuko bideetan zehar Galileara eramango zuen, Nazaret inguruko mendi-hegal batera. Han, eta nire familiak lagunduta, nire instrukzioei jaramon egiten bazien, ondo gordetako leize-zulo txiki bat aurkituko zuen, hain zuzen ere, leize horrek emandako babesa izan nuen ekaitzetatik eta jendearengandik, gazte bihurri eta zoritxarreko bat nintzenean eta munduari muxin eginda nengoenean. Josek hitz eman zidan leize-zuloa aurkituko zuela nik emandako mapa baten bidez, eta -beste baltsamendu bat egin ondoren- bertan utziko zuela ene gorpua. Gero sarbide txikia berreraiki egingo zuen, izan zitezkeen arrotzetatik guztiz libratzeko. Nire gorpuak atsedena izan du bertan eragozpenik gabe.

Esan ohi da 'nire gorpua hildakoen artetik berpiztua izan zela'. Hori bai taxugabeko asmakeria, lurreko gogamenek asmatua, hain zuzen ere, ez baitzekiten asetasunez nola azaldu nire heriotza gurutzean gaizkile bat bezala!

Nolatan izango nuen nik lurreko gorputz baten beharrik, hurrengo dimentsioan existitzen jarraitzeko? Nola iraun dezake halako mito barregarriak, baita XX. mendean ere? Horrek erakusten du Kristauen ulerkuntzaren gabezia zenbaterainokoa den; aipatutako dogma hori itsu-itsuan onartu izana gaur egun arte, alegia.

Hausnar ezazu horretan arreta handiz! Lurreko gorputz batetik askatua izan ondoren, eta **KONTZIENTZIA UNIBERTSALA** den goreneko dimentsio bikain batera igarotzeko estasi eta liluramendu osoz izandako bizipena izan ondoren, zergatik nahi izango nuen nik lurreko dimentsiora itzuli, berriz nire gorputzean sartzeko?

Zer onura lekarkioke zure munduari edo nireari? Lurrean bizi nintzelarik, nire gorputzaren 'substantzia fisikoa' espiritualizatua izan zitekeen **Aitarek Kontzientzia Amultsuarekin** erabat harmonizatuta egotean bai, baina ez al zen oztopo bihurtuko geroko bidaiak egiteko, goreneko Erresuma Espiritualaren baitan?

Gauza ikusgaiak -edo begibistakoak-, bibrazio-frekuentzia espezifikoen manifestazioa baino ez dira kontzientzian. Frekuentzia horiek **TANTOEN EDO PARTIKULEN DISTIRA** sortzen dute, eta 'materia solidoen' itxura hartzen dute. Substantzia ikusgai bakoitzak bere bibrazioen frekuentzia bakarra du. Bibrazioen proportzio aldaketak itxura aldaketa eragiten dio 'materiari'.

Kontzientziaren energiak aldatzean, 'materiaren' itxura ere aldatu egiten da.

Beraz, gerta zitekeen nik neure kontzientziaren frekuentziak fokatzea eta neurri batera jaistea, giza begiarentzat nire itxura ikusia izan arte. Dizipuluengana itzul nintekeen eta berek ni ikusia izatea. Eta horrelaxe egin nuen. Inoiz baino gehiago maite nituen; eta nire heriotzaren ondoren emateko gai nintzen adina pozbide eta laguntza zor nien. Ez hori soilik, beharrezkoa zen nire ahalmena euren gogamenen baitan bideratzea, neuk hasitako lanari eusteko gogoia eta adorea eman niezaien.

Hala ere, zuk zera jakin dezazun nahi dut: **Unibertsoko Dimentsio Sortzailearen** atarietaraino bertaraino bibrazio-frekuentzietan igo izandako 'kontzientzia indibidualizatua' **ARGI INDIBIDUALIZATU** bihurtzen dela, eta hori **KONTZIENTZIA INDIBIDUALIZATUA** da, **ZEINAK** ez duen gorputzik behar, **KONTZIENTZIA AINTZAGARRIAK** sor dezakeen guztia adierazteko eta gozatzeko, goreneko **ERRESUMA ESPIRITUALETAN**. Iztearen egoera gorena eta estasiatua da; 'egoaren' gainetik eta haratago erabat igo ez direnek esperimenterik desira, behar edo bulkadetako bakar baten beharrik ere izan gabe.

Lurrean bizi zaren bitartean, zure gogamena ainguraturik dago bibrazio-frekuentzien parametro jakin batzuetan, berezko beharrak dituen gorputz batean sartuta. Zure kontzientzia benetan parametro horietatik haratago igoko balitz, zure lurreko izatea desagertu egingo litzateke. Ni gorputz batean harrapatuta egon nintzenez; neurri handi batez mugatuta nengoen bibrazio-frekuentzia horien eta kontzientziaren parametroetara.

Areago, irudimena, bera bakarrik, ezin da igo zure aurreko esperientzietatik haratago; eta beraz, iraganean barneratuta zaude, eta iragan horixe proiektatzen duzu etorkizunerantz.

Hala ere zu, goreneko dimentsio espiritualetan sartzeko nahikoa sentiberak diren eta oraingo zure kontzientziaren mugetatik haratago mugi daitezkeen gogamenek gidatua izango zara pixkanaka.

Eurek zuretzat grabatuko dituzte esperientzia zoragarri horiek, eta zuregandik haratago dauden izatearen egoera horiek; zeinetara zu zeu irits baitzaitezke. Horrela, mailaka edo urraska aurrera egingen duzu garapen espiritualetan.

Urrats bakoitzak lortu ahal denaren ikuspegi altuago bat dakarkizu, eta ikuspegi horretatik zuk beste muga bat formulatuko duzu. Muga hori beti aurrean duzula, lurreko existentziaren 'atxikidura – arbuioa' bulkaden eragin kutsagarritik arazteko edo garbitzeko lan egingo duzu. Urratsez urrats zuk egoa gaindituko duzu.

Egoa gainditzen duzunean eta hori zure kontzientzian hiltzen denean, ugaritasunez, guztiz bizirik zaude '**Aitaren Kontzientzia Amultsuaren**' baitan, eta Zeruko Erresumaren Errealitatea aurkitzen duzu zure bizitzaren baitan eta inguruan.

ZUK maitasunaren, alaitasunaren, harmoniaren eta estasiaren gailur horiek lortu ahal izateko, ni Palestinan bizi, lan egin eta hil nintzen, eta orain **GUTUN** hauen bidez etorri natzaizu.

Ez utzi nire lana alferrik izaten bigarren aldi honetan. Orri hauek irakurri bitartean bilatu, mediatu eta egizu otoitz inspirazioa lor dezazun. '**Aitaren**' erantzuna sentitzera helduko zara, eta egunero adi-adi egoten bazara '**Aitaren Ahotsa**' entzungo duzu.

Ahots hori beti dago zurekin. Kendu zeure borondateak sortutako oztopoak! Ireki ezazu zeure bihotza, zuzenean **Aitaren Kontzientziaren Amultsuarengandik** indarra, ahalmena, inspirazioa eta maitasuna jasotzeko.

Irakurri behin eta berriro GUTUN hauek azkenean zure kontzientziak bereganatu ahal izateko. Hori egiten duzun bitartean, **ARGI ALDERA** zaramatzen bidean joango zara, eta **ARGIA** irradiatuko duzu gainerakoentzat.

ARGI hori ez da elektrizitatearena bezalako argia, baizik eta **1. GUTUNEAN** deskribatu nizun **KONTZIENTZIA UNIBERTSALAREN** izaerarena berarena. Beraz, **ARGIA** irradiatzen duzun bitartean, baldintzarik gabeko maitasuna irradiatuko duzu. Zuk entitate bizi guztien hazkunde eta garapen espirituala sustatuko duzu. Elikatzea eta hornitzea irrikatuko duzu; babestea, sendatzea, eta hezkuntza sustatzeko ahaleginak egingo dituzu. Zuk lagundu nahi izango duzu maitasunaren eta ordenaren legearen ezarpenean, non denak harmonian bizi ahal izango baitira arrakastan eta oparotasunean. **Zu Zeruetako Erresuman izango zara.**

Aldi berean, ez ezazu egin ilusiorik.

GUTUN hauek munduan zehar aurkezteko urratsak egin bitartean, Palestinan hasieran irakatsi nuenean bezala, zehatz-mehatz gaitzeppen berak egongo dira, kondenzazio bera, eta Satanasen esan berberak, -deabruarenak-. Izan adore!, otoitz egizu ausarta izateko. Azkeneraino jasaten dutenak nahaste-borrastearen eta indarkeriaren gaineratik gora igoko dira, eta Erresumaren bakean eta alaitasunean atsedena hartuko dute.
